

IRATXE ESNAOLA

GABONETAKO ARGAZKI BEHARTUA

Memoriako egutegia-
ren hasie-
ratik, edo-
ta jaio
nintzene-
tik, Gabonetako bizipenak urte-
roko aldagai bat dira niretzat.
Erabat lotuak daude nire egoera
pertsonalarekin. Horren isla bila-
katzen dira. Argazki bat. Argazki
derrigortu bat, aurrez ezarritako
datetan, nik erabaki gabe, nire
argazki hori ateratzeko unea izan
ala ez. Bai, Gabonak argazki bat
dira: urte amaierako ispilu per-
sonal bat.

Txikitan Olentzeroren miste-
rioak eta magiak sorginduta bizi
nituen Gabonak. Opari pila bat

jasotzen nituen. Alta, zirrara hori
bizi nezakeenean ere, gure etxe-
an ez zegoen, familia giroko
otordu oparo eta goxoez gain,
Gabonen gaineko izpiritu berezi-
rik. Ez apaingarririk, ez zuhai-
tzik, ez mahatsik ez ezer. Eta
Erregeen egunean abstenitu egi-
ten ginen, gurasoen erabakiz. Ga-
bon gaua, Eguberri eguna, Urte-
zahar gaua eta Urteberri eguna
jandako guztiaren tripako minak
bereizten zituen, familiako kide-
en konpainiaz harago. Gaboneta-
rako ilusio berezirik ez, hortaz,
baina ezarriak datozen egun ho-
rietan guk ere ia gainontzeko
guztiekin egiten duten hori egiten
genuen: mahaiaren bueltan el-
kartu, eta jan.

Nerabezaroan, Gabon gaueko
eta Urtezaharretako lagunarteko
poteoek hartu zuten indarra.
Afaltzera ardo batzuk edanda ere
iristen nintzen, ohartu gabe (ne-
rabezaroa, familian berriketara-
ko faserik konplikatuen den ho-
rretan). Urteberria ere parranda
luze eta ero batekin hasteko ga-
raia zen. Unibertsitateko urtee-
tan, nerabezaroako bizipenekin
jarraitzeaz gain, herritik kanpo
bizi ginen lagun guztiok elkar-
tzeko garaia ere bazen. Gabonek
bazuten, hortaz, 'funtzio' bat
oraindik.

Nik unibertsitatea bukatu eta
gutxira aitak utzi gintuen,
2005eko uztailean. Eta horrek,
bizitzan, oro har, eta Gabonetan,

bereziki, inflexio puntu bat eka-
rri zuen. Hor hasi nintzen Gabo-
netako ispiluaren drama aurrez
inoiz ez bezala sentitzen.
2005eko lehen Gabon haiek oso
gogorak izan ziren. Arraroak.
Bagenekien lehenak zirela, eta
horrek dramaren dimentsioa
handitzen zuela, baina urteek
erakutsi didate Gabonetako ar-
gazkietako bat beti izango dela
aitaren falta. Eta une horretan,
Gabonekiko harremanean gain-
behera ikaragarri bat sentitu
nuen. Ordurako hain gustuko ez
nituen Gabonak, gorrotagarri bi-
lakutzen hasi ziren. Eta horrela
jarraitu du izaten, gutxiago edo
gehiago, izeba izan nintzen arte.

Ilobak berarekin dakar umea-
ren inozentzia eta ametsetarako
berezko prestutasun eta gaitasu-
na. Berarekin dakar Olentzero-
ren itzulera eta bere magia guz-
tia. Eta iloba gai da hori guztia
inguruko guztiei transmititzeko.
Umeek familia-giroa astintzen
dute. Begirada eta arreta lapur-
tzen dizkigute. Eta Gabonen dra-
ma ahazten edo lausotzen ere la-
guntzen dute. Baina halere,
ilobak ez du lortu Gabonekiko
nire distantzia guztiz desager-
tzea (beharbada ni neu ama iza-
tean aldatuko da, aldatzekotan,
eta bestela, sekula ez).

Aurten, Gabonei planto egitea
erabaki dut, erdizka bada ere.
Planto horrek, noski, ezarritako
ohiturak astintzea dakar, jakinik
ere, Gabon izpiritu berezirik ez
dela inoiz izan nire etxean. Bai-
na badakar aldaketa bat, eta in-
gurukoaren halabeharrezko onar-
pena.

Aurten urte berria lagun talde
batekin Euskal Herritik urrun
hastea erabaki dut. Gabonetako
argazkia behartua den heinean,
nire buruari egin diezaiokekan
oparirik handiena benetan desio
dudan argazkia lortzeko ahalegi-
na baita: badu ihes puntu bat,
noski, baina hori da aurten atera
nahi dudana argazkia.

